



Sarrionandia (-a) etxebizitza

Aldaerak:

Ahozkoa: Ónaindi

“... la casería titulada Sarrionandia en el termino de la anteiglesia de Berriz, en el barrio de Sarria... de una vivienda, ocupa una planta solar de noventa y tres estado, o sean cincuenta y tres metros incluso la superficie que ocupa el horno. Se halla distribuida en piso llano, alto o principal o desvan, el llano de compone de zaguán, cocina, cuatro dormitorios y cuadra. El piso principal, de sala, dos dormitorios, y el resto pajar...”
DJE, 4/128 or. (1879)



43° 11' 25"

2° 35' 46"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Sarria kofradiako baserri honen gaineko lehen aipu dokumentala XVII. mendeko bigarren erdialdean aurkitzen dugu: *Sarria Onandia* (1672, BAHP, A1264/32.). Gerora, XVIII. mendearren hasieran, Bizkaiko lehendabiziko su-errol-detan *Ẓarrionandi* (1704) aurkitzen dugu. Lehendabiziko su-errola horretan, Sarriako aipu guztiak Ẓ hizkiz idatzirik agertzen dira. Bereztasun horretaz aparte, hortik aurrera aipu guztietan *Sarrionandia* dena jarraian eta S hizkiaz idatzirik agertzen da: *Sarrionandia* (1826) BAHP, A164/15.), *Sarrionandia* (1879, DJE, 4/ 128. or.) eta *Sarrionandia* (1967, BUA, CE.). Ahozko transmisioan, beste kasuetan bezala, *Sarria* baztertzen da, eta izenaren bigarren zatia baino ez da erabiltzen *Ónaindi*.

Aspaldiko baserri etxea, egituran dolarea zuena, orain dela lau bat mendetakoa, behintzat, fatxada nagusiak ondo baino hobeto adierazten duen moduan. Azkeneko berriztatze lanetan aldaketa batzuk egin badizkiote ere, orokorrean gorde du jatorrizko izaera. Azpimarratu beharko genituzke aldamenetako bi gorputzak, XVI. mendean erabiltzen ziren harlanduzko silarriekin eginak. Neurri oneko leiho bana zuten beheko solairuan eta gaur egun, goikoan ere bai. Eta erdiko gorputza, berriz, material xume eta arinagoekin egindakoa, atarte handiaren gainean eratua, eskumako bigarren solairuan ere ikus zitekeena. Atartearen zabalera salba-tzeko, egurrezko dintela zuen eta hari eusteko, zutikoa. Gaur egun, etxearen itxura guztiz bateratu dute, ongi bereiziz hiru gorputz edo atalak, bereziki indartuz erdialdekoa, oso kolorista bilakatu baitute, egurrezko egitura eta horma luzituak errekuiperatuz eta zutoinak ere biderkatuz.